

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO ETA EMAKUMEEN
AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEA

LEGE BERRI BAT BERDINTASUNEAN • AURRERAPAUSSAK EMATEN JARRAITZEKO



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTITZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

BERDINTASUNERAKO LEGE BERRI BAT

AURRERA EGITEN JARRAITZEKO
FUNTSEZKO TRESNA GISA

2022ko martxoaren
3an, Eusko Legebiltzarrak
*Emakumeen eta Gizonen
Berdintasunerako Legearen
bigarren aldaketa egiteko*
legea onartu zuen.

Lege hau 2005ean
onartutako *Emakumeen eta
Gizonen Berdintasunerako
Legearen* zabaltze eta
eguneraketa da, gure
berdintasun-politiketarako
mugarri izan zena, **arlo
askotan aurrerapen
garrantzitsuak sustatuz:**

Europako Berdintasun Indizean, Euskadi sailkapeneko lehen zortzi herrialdeen artean dago, 100etik 73,1 punturekin. 10,8 puntura du Suedia (83,0), lehen postuan, eta Europar Batasuneko herrialdeen batez bestekoaren 5,1 puntu gainetik dago (68,0).

Azken hamarkadetan gure herrian berdintasunaren arloan egin diren aurrerapenak eztabaida ezinak dira, baina erronkak asko dira oraindik. Lege berriak herrialde gisa honako arlo hauetan aurrera egiten jarraitzeko aukera emango digu:

- Berdintasun-politiken zeharkakotasuna politika publiko guztietan.
- Emakumeen ahalduntzea.
- Zaintza lanak baloratzen eta partekatzen dituen gizarte bat eraikitzea.
- Gizonen inplikazioa berdintasunean.
- Pobreziaren feminizazioa murriztea.
- Hezkuntza, balioak aldatzeko tresnarik eraginkorrena bezala.
- Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza eraikitzea.


Berdintasun-politiken garapenean orain arte egindako lanean sakontzeko oinarri sendoak ezartzen dituen legea da. Helburua herrialde hau arlo honetan aurreratuenen dauden herrialdeen mailan kokatu ahal izatea da eta herritarren eta datozen belaunaldi berrien bizitza hobetu ahal izatea.

Emakumeen partaidetza soziopolitikoa


2005eko berdintasunerako euskal legeak Eusko Legebiltzarrerako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetan hautagaien **%50a** gutxienez emakumeak izan behar zirela ezarri zuen.

LORPENAK

Gaur egungo Eusko Legebiltzarra parekidea da gizonen eta emakumeen artean (% 50,7 emakumeak).



ERRONKAK



Emakumeek ordezkaritza txikia dute oraindik sektore ekonomiko pribatuko erabaki-arganoetan. Eusko patronaletako zuzendaritza-batzordeen % 18 eta IBEX 35eko (EAEko egoitza) enpresetako administrazio-kontseiluen % 29 dira.

Berdintasunerako lege berriak emakumeen ahalduntzean, haien autonomia ekonomikoan eta partaidetza sozial eta politikoan aurrera egiten jarraitzeko aukera emango dio euskal gizarteari.

Legeak hau sustatzen du:

- Emakumeak ordezkaritza txikia duen lanbide eta sektoreetan emakumeen kontratazioa bultzatzeko ekintzak, batez ere, ekonomian estrategikoenak diren horietan.
- Sektore feminizatuetan enplegu-baldintzak hobetzea, hala nola, zaintzan edo etxeko zerbitzuetan.
- Bereziki kalteberatasun-egoe-
ran dauden emakumeen eta kolektiboen premiak kontuan hartzea, hala nola, guraso baka-
rreko familiak, adineko emaku-
meak, migratzaileak edo gizar-
te-bazterkeria egoeran dauden emakumeak.
- Ahalduntze-neurriak hezkun-
tzan, kulturen eta teknologia berrietan, besteak beste.

Zaintza eta kontziliazioa

LORPENAK




2005 - 2020

%25

Seme-alabak zaintzeko eszedentzia eskatzen duten gizonen ehunekoa % 25 hazi da azken urteotan.

ERRONKAK



Emakumeek ordaindu gabeko etxeko lanen bi heren egiten dute.

Gure biziraupenerako
eta gizartearen
funtzionamendurako
ezinbestekoak izan arren,
zaintzak ikusezinak dira
kasu askotan eta ez daude
behar bezala baloratuta eta
banatuta emakumeen eta
gizonen artean.


**Lege berriak zaintza
erdigunean jartzeko
baldintzak bultzatzen
ditu, emakume eta
gizonen artean,
erakundeen artean
eta gizarte osoaren
baitan baloratu eta
banatzeko.**

Legeak hau sustatzen du:

- Enpleguaren, kulturaren eta enpresa-praktikaren egiturak egokitzea, kontziliazio erantzukidearen bidez, besteak beste.
- Zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa zerbitzu eskura-garrien, malguen, kalitatezkoen eta irisgarritasun errazeko bidez.
- Gizonen erantzukidetasuna sustatzea eta zaintzaren etika eta praktika orokortzea.

Merkatuan parte hartzea eta baliabide ekonomikoak

LORPENAK




Emakumeen jarduera-tasa
% 10 hazi da azken 25 urteetan.

ERRONKAK



Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala oraindik handia da (17,9% 2020an). Batez beste, emakumeek gizonek baino 5.914 euro gutxiago irabazten dute urtean.



Gaur egun, emakumeen batez besteko errenta pertsonala duela 20 urtekoaren bikoitza baino gehiago da.



Gaur egun, emakumeek gizonek baino aukera gehiago dituzte pobrezian bizitzeko. Arriskua are handiagoa da guraso bakarreko etxez ari garenean edo atzeritar jatorrikoak direnean.

Ekonomia- eta lan-politiketan berdintasuna bultzatzea ezinbesteko elementua da giza garapen iraunkorrerako. Enpresen lehiakortasun-aurrerapenarekin batera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortu behar da esparru ekonomikoan. Lege berriak aukera ematen du enpresetan eta emakumeen eta gizonen egoera ekonomikoan aurrera egiteko.

Legeak hau sustatzen du:

- Euskal sektore publikoaren diru-laguntzak kontratatzen edo jasotzen dituzten enpresa eta erakundeek gardentasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunaren printzipioa bete behar dute.
- Kontratuak eta diru-laguntzak jasotzeko aukerarik ez dute izango honako enpresa hauek: Zigortuak izan direnak edo berdintasunaren arloko legezko betebeharrak betetzen ez dituztenak.
- Ordainsari-diskriminazioari aurre egiteko eta balio bereko lanagatik ordainsari berdinarekin printzipioa aplikatzen dela bermatzeko baliabideak jarriko dira enpresen eskura.

Hezkuntza

LORPENAK





%10

Azken 10 urteak

Emakumeek gero eta presentzia handiagoa dute tradizioz eremu maskulinoa izan den sektore zientifiko teknologikoan.

ERRONKAK



Ikasketak aukeratzeko orduan genero-aldea oraindik ere errealitate bat da. Unibertsitateetan, emakumeak gutxiengoa dira oraindik ikertzaile nagusien artean (39,5%), baita tesiak zuzentzen dituztenen artean ere (27,6%).



Hezkidetza hauren ahalmenen aitorpenean oinarritzen da, haien sexua edozein dela ere, eta funtsezko tresna da berdintasuna sustatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko. **Genero-ikuspegia jakintza-arlo guztietan sartzea eta irakasleak prestatzea dira lege berriak bultzatzen dituen urrats estrategikoak.**

Legeak hau sustatzen du:

- Hezkuntza-administrazioa hezkidetza-planak egitera eta gauzatzera behartzen da.
- Ikastetxe guztiak hezkidetzako eta berdintasuneko ardura-dunak izatera behartzen dira, irakasleei eta haien ordezkari-tza-organo gorenei behar beza-lako prestakuntza emanez.
- Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek genero-ikuspe-gia diziplina eta jakintza-arlo guztietan txerta dezaten susta-tuko du Administrazioak.
- Emakumeen eta gizonen ber-dintasunari buruzko derrigo-rrezko prestakuntza ezarri da euskal herri-aginteetako langile guztientzat, hezkuntza-eremu-koa barne.

Emakumeen aurkako indarkeria

LORPENAK



Langabezia



Ustelkeria eta iruzurra



Alderdiak eta politika





Arazo ekonomikoak



Emakumeen aurkako indarkeria

Azken urteotan, gora egin du euskal gizartea indarkeria matxistaren aurka sentsibilizatzeak, bai eta indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko baliabide eta zerbitzuek ere.

ERRONKAK



Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzu Espezializatuan (SATEVI) artatutako emakumeen % 55,1ak seme-alaba adingabeak ditu beren ardurapean, eta horiek ere indarkeria horren biktima dira.

Emakumeen aurkako indarkeria da desberdintasunaren adierazpenik basatiena. Lege berriak aurrerapausoak ematen ditu sentsibilizazioan eta prebentzioan, bai eta indarkeria jasaten duten emakumeei eta haurrei ematen zaien arretan ere.

Legeak hau sustatzen du:

- Indarkeria matxistaren erroa emakumeei jasaten duten desberdintasunean eta diskriminazioan datzala dioen ikuspegia.
- Arreta-sistema indarkeria matxistaren adierazpen guztien biktimei zabaltea da, hala nola, genitalen mutilazioa edo emakumeen salerosketa.
- Babes handiagoa ematen die haur eta nerabeei, haien beharretara egokitutako arreta-zerbitzuekin, eta indarkeria matxistaren on-

dorioz hildako umezurtzentzako laguntza espezifikoa bat sortzea aurreikusten du.

- Biktimen arreta bermatzen du, prozedura judizial batean sartuta dauden ala ez kontuan hartu gabe.
- Indarkeria matxistatzat hartzen da biktima atsekabetzeko asmoz biktima babesten duten pertsonen aurka egindako indarkeria, bai eta haren ingurune hurbil edo afekti-boaren aurka egindakoa ere, batez ere seme-alaben edo beste senide batzuen aurka.
- Biktimei jasandako kalteak konpontzeko eskubidea jasotzen du.
- Biktimak artatzen dituzten profesional guztiek berdintasunean espezializatutako prestakuntza izan dezaten behartzen du.
- Biktima orok arreta integrala, doakoa eta kalitatezkoa jasotzeko eskubidea bermatzen du, bereziki kalteberatasun-egoera handien daudenak.

Legeak beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoak arazo unibertsal, estruktural eta dimentsio anitzekoa gainditzeko, hala nola, desberdintasunarena eta generoan oinarritutako indarkeriarena. Horregatik, **beharrezkoa da legea berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako herri-itun handi batekin laguntzea.**

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

Nazio Batuen Generation Equality ekimenaren esparruan nazioartean inplikaturik eta lerrokatuta dauden eragileekin ari da lanean.

Lan horren ondorioz, Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzetarako Herri Ituna jarri da abian.

Itunari buruzko informazio guztia hemen:
www.emakunde.euskadi.eus

